

Europa  
eta Amerikako  
Estatu Batuen arteko  
merkataritzako  
eta inbertsiorako  
hitzarmenaz

AIALA ELORRIETA AGIRRE

## Aurkibidea

# TTIP: Europa eta Amerikako Estatu Batuen arteko merkataritzako eta inbertsiorako hitzarmenaz

Aiala Elorrieta Agirre

3	Hitzaurrea
4	1. Sarrera: akordioaren jatorria eta aurrekariak.
5	2. Akordio geostrategikoa
7	3. Oztopo batzuentzat, eskubide besteontzat.
8	4. Mexikora begira: zer ikusi hura ikasi
12	5. Nolakorekin ibili hainbatean irudi
20	6. Subiranotasunaren galera: enpresa-estatu auziak.
21	7. Azken hausnarketa
23	Oharrak
24	Glosarioa
25	Bibliografia



**Dokumentuak 31**

*2014ko uztaila*

[www.mrafundazioa.org](http://www.mrafundazioa.org)

@mrafundazioa

---

# TTIP: Europa eta Amerikako Estatu Batuen arteko merkataritzako eta inbertsiorako hitzarmenaz

Aiala Elorrieta Agirre

## Hitzaurrea

Sigla potoloa da TTIP: Transatlantic Trade and Investment Partnership. Euskaraz ere, mingaina tratatzeko modukoa: Atlantiko-arteko Merkataritza eta Inbertsio Hitzarmena. Gainera, ulertezina dirudien hau entenditzen hasita, izu sentrazioa gailentzen da.

Erraz eta hiru urratsetan aurkeztearren, esango genuke bi eskualderen artean (1) negoziatzen ari den (2) merkataritza hitzarmena (3) dugula. Bi eskualdeak ez dira hutsaren hurrengoa, Atlantikoaren bi aldeetako ekonomiarik handienak baizik. Ameriketako Estatu Batuetaz (AEB) eta Europar Batasunaz ari gara, noski, eta bien artean munduko merkataritzaren here-na betetzen dute.

Akordioa erabateko sekretupean negoziatzen ari dira nazio-gaindiko elite politiko eta enpresarialak. Erabaki-gunea herritarrengandik urrun dago, demokraziaren kontroletatik kanpo. Urruntasun hori, noski, bera-riazkoa da. Gizartearen gehiengoak ez du honen inguruan informazio askorik jasoko, eta entzun dutenen artean, asko dira gaiaren konplexutasunak beldurtuta, amore ematen dutenak. Merkataritza hitzarmenez ulertzen ez dugulako; arrotz egiten zaizkigulako. Akordioaren atzean zer dagoen ulertzeko zailtasun horiek, beste mekanismo bat dira akordioa herritarrengandik gehiago aldentzeko.

Hitzarmena, baina, merkataritzaz harago doan proiektua da. Ekonomiaren esparrua gailentzen duen proiektu politiko, ideologiko eta soziala. Konplexua bezain garrantzitsua dugu auzi hau. Hitzarmenaren defendatzaileek kode sekretuan aurkeztu nahi diguten arren, proiektu honen sakonean dagoena askoz ere sinpleagoa da. Horixe da dokumen-

tu honen helburu nagusia: ikuspegi kritiko batetik, TTIP merkataritza hitzarmenaren gaia era argi eta ulerterrazagoan zuengana hurbiltzea.

Hitzarmenaren helburua merkataritza jarduerari traba egiten dioten oztopoak ezabatzea dela, horixe defendatzen dute proiektuaren babesleek. Ondasun eta zerbitzuen merkatuak liberalizatzea, alegia. Ikuspegi kritiko batetik, geroz eta mugimendu sozial, sindikatu, GKE eta talde gehiagok TTIParen aurkako jarrera argia erakutsi dugu: hitzarmenaren xedea, men-debaldean urteetan gureganatu ditugun eskubideak atzera botatzea da. Gizartea, lan esparrua, osasuna eta ingurumena babesten dituzten araudiak paretik kentzea. Azken batean, bide honetatik pertsona fisikoek baino eskubide gehiago bereganatu nahi dituzte korporazioek.

Elite politiko-korporatiboek, komunikabide nagusiekin batera gaiari ematen dioten trataera, ez dator bat zenbait mugimendu, sindikatu eta GKEk ikuspegi kritiko batetik, ematen diogunarekin. Dokumentu hau prestatzen ari garela, zorionez, gaiaren inguruko informazio eta argitalpen sorta ateratzen ari da, gehienbat ekimenaren aurka dauden mugimendu sozialen aldetik.

Europa urrun geratzen zaigun sentsazioa izan dezakegu. Urruti Europar Batasuna, are urrunago Atlantikoaren beste aldea. Ekonomiaren inguruko zenbait kontu konplexuk ihes egiten digutelako sentsazioa. Ez dugu zertan sentsazio hauen aurrean etsipenean erori. Bi tresna baditugu behintzat: lehena informazioa, eta bigarrena, mobilizazioa. Des-informazio egoera gainditzeko urratsa dugu lehengoa. Has gaitetzen, bada, pausuz-pausu TTIParen gaia jorratzen.

## **1. Sarrera: akordioaren jatorria eta aurrekariak.**

Atlantiko-arteko hitzarmen honek, TTIP delakoak, Munduko Merkataritza Erakundearen baitan du sorburua. MME erakundea 1980ko hamarkadan eratu zen, eta orduetik bere xede nagusia merkataritza eta inbertsioak liberalizatzea izan da. Are gehiago, esan genezake MME erakundea horretarako eratu zela. Harrez gero, mundu mailan merkataritzaren liberalizazio hori bultzatzeko, Merkataritza Libreko Hitzarmenak (MLH) sustatu ditu Atlantikoaren bi bazterretan.

Zer dira baina Merkataritza Libreko Hitzarmenak (MLH)? Funtsean, bi eskualderen edo gehiagoren artean egiten diren itunak dira (aldebikoak ala aldeanitzak), eta parte hartzaileen artean ondasun eta zerbitzuen merkatuak handitzea dute helburutzat. Horretarako, nagusiki, muga-zergak gutxitu edo ezabatu egiten dira. Baina, horretaz gain, inbertitzaileen artean

---

---

segurtasun juridikoa bermatzen duen akordioak ere badira. MLHen defen-  
datzaileek, jarduera ekonomikoaren hazkundera eta enpleguaren sorrera  
bultzatzen duten tresna gisa aurkeztu ohi dituzte.

Joseph Stiglitz Nobel saridunaren ustetan, MLHak erabat asimetrikoak  
dira, berdintasuna eta demokrazia bultzatu ordez, sektore eta elite jakin  
batzuen interesak baino bermatzen ez dituztelako. Argiago esanda, AEBk  
bere neurri inposatutako akordioak izan ohi dira eta Heinz Dietererich  
ekonomialari alemanaren ustetan monopolio horixe da iparamerikarren  
aberastasunaren giltzarria. Naomi Klein ere MLHen aurka dago, pertsonai  
eta demokraziari kalte egiten dielako.

Are gehiago, Stiglitz arabera, hitzarmen hauek globalizazioaren eta  
desberdintasunen hazkunderaren artean zubi lana egiten dute.  
Globalizazioa eta desberdintasunen hazkundera. Izan ere, merkataritza  
edukiez gain, esparru politiko eta sozialetan ere badute eragina.  
Kapitalaren alde ondasun eta zerbitzuentzat merkatuak ireki egiten diren  
bitartean, pertsonen mugimendu askea oztopatzen dute. Finean, MLH  
enpresen mozkinak "oztopatzen" dituzten politika publikoei desafio egite-  
ko arma bilakatu dira.

Beharbada, Ipar Ameriketako dugu guztietan ezagunena -Ipar  
Amerikako Merkataritza Librerako Hitzarmena, NAFTA-; Kanada, AEB eta  
Mexikoren artean sinatutakoa. Agindutako hitza bete ordez, akordioak  
Mexikoko pobrezia eta menpekotasun arazoak nabarmen indartu ditu.  
Hona hemen balantzea: Washington eta Mexiko D.F.ko itzal handiko  
enpresa handienei ekarritako onurak, gizarte klase apalenen artean sortu-  
tako kalteak baino askoz txikiagoak izan dira.

1994an NAFTA abian jarri zenetik, Mexikoko artoaren barne prezioak  
hondoa jo du: prezioek %70 baino gehiago jaitsi dira, eta horren ondorio-  
ak latzak izan dira Mexikoko biztanleriarengan. 15 milioi baino gehiago dira  
artoaren ekoizpenaren menpe bizi direnak, eta prezioen beherakada  
honek familia askoren sarreren erortzea suposatu du. Ondorioak ageriko-  
ak dira familia hauen bizitza mailan: bizirauteko emigraziora jotzen dute,  
edo etxean zein etxetik kanpoko lanorduak luzatu beharra izan dute.

## **2. Akordio geostrategikoa**

Asko dira TTIP proiektuaren sustatzaileek goraipatzen dituzten onurak,  
berezi hazkunde ekonomikoaren eta enpleguaren hazkunderarekin lotu-  
takoak. Europako Batzordearen arabera, balizko onuren artean 400.000

lanposturen sorrera aurreikusten da. Ildo beretik, Barack Obamak ere milioika lanpostu kualifikatu ernatuko direla goraiatu du.

Bestalde Europar Batasunaren txosten batek hazkunde ekonomikoaren inguruko datuak ekarri ditu. Ez dira txunditzeko modukoak: 10 urteren buruan, eskualdeko ekoizpena %0,1 gehiago haziko dela aurreikusten da, hau da, urtero 0,01% gehiago. Zenbaki irigarriak eta jakina, ez dira proiektuak dakartzan kalte eta mehatxu itzelak konpentsatzeko modukoak...

Baina bi horiekin batera, hitzarmenak duen izaera geopolitikoa nabarmentzen dute. Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) emandako zenbait datuk lagunduko digute hori ulertzen. ELGAREN arabera, 2015 urtean munduko BPGaren %90a Europatik kanpo ekoiztuko da, eta Txina bera bakarrik, herena ekoizteko gai izango da.

Hortaz, Washingtonentzat, akordio honek badu interes geostrategiko argia: hain zuzen ere, Txina eta goraka ari diren gainerako herrialdeen aurrean -BRICS; Brasil, Errusia, India eta Hegoafrika-, Mendebaldearen nagusitasuna bermatzea.

2000 urteetan, Txinaren merkataritza jarduerak esponentzialki egin du gora, eta bai inportazioak eta baita esportazioak ere, laukoiztu egin ditu. Horren esanahia zera da: mende bat iraun duen AEBren hegemoniaren amaiera. Zenbakitan ikustearren, jo dezagun ATTACek emandako adibidera: 2008ko krisialdiaren atarian, AEB munduko 127 herrialderen merkataritza-kiderik garrantzitsuena zen, eta Txina berriz, 70 herrialderenena. Gaur egun, egoera irauli egin da: Txinari 124 herrialde dagozkio eta AEBei, 76 baino ez.

Javier Solanaren hitzetan -Europar Batasuneko Atzerri gaietako goiordezkeri ohia- "Europak eta AEBk elkarren beharra dute eta Atlantikoaren bi aldeetako herrialdeen elkarlana funtsezkoa da". Bestela esanda, AEB eta EBko eliteak beldur dira mundu-mailako merkataritzan bere lekua galduko ote duten, eta kontraerasoa prestatzen ari dira.

Oraindik ere handia da bi eskualdeek merkataritza eta Atzerriko Inbertsio Zuzenean (AIZ), munduan betetzen duten lekua, eta hitzarmenaren helburuetako bat mundu mailako merkataritza libreko eremurik handiena osatzea da; 800 milioi kontsumitzaile eta munduko merkataritzaren herena biltzen dituen.

André Sapir Bruselan finkatuta dagoen think-tank neoliberalaren kide da. Bere hitzetan, akordioaren muina, Txinari mezu argi bat bidaltzean datza, munduan garrantzitsuak garela jakin dezaten. Ikuspegi honetatik, herrialde-arteko tresna geopolitiko indartsu gisa aurkezten da hitzarmena.

Tom Kucharz nazioarteko ekintzaile ekologistak beste era batean ulertzen du. Hitzarmenaren kutsu geopolitikoa onartu egiten du, kontuan hartu beharreko ñabardura batekin: oso tresna garrantzitsua da, bai, baina Inperialismo Geopolitikoaren frontierako. Hau da, nazioarteko norgehiagoka komertzialaz harago, eredu inperialista eta neoliberalarentzat estrategikoa den tresna gisa ikusten du. Mundu mailako elite politiko eta ekonomikoek gizarte zibilari eta biztanleriaren gehiengoari eraso egiteko duen tresna baliagarri gisa. Txanpon beraren bi aldeak.

Kucharzen iritziz, merkataritza liberalizazioaren aldeko politikek bi alderdi dituzte. Alde batean ditugu azken urteetan aplikatu diren austeritate neurriak, murrizketak eta gizarte eta lan esparruetako eskubideen aurkako erasoak. Beste aldean, TTIP bera dugu. Hitzarmenaren bidez, austeritatearen bitartez eskuratu ez dituen pribilegioak eskuratu nahi ditu lobby politiko-enpresarialak. Era horretan, murrizketa, pribatizazio eta kapital fluxuen liberalizazio prozesuetan areago sakondu eta kapital handien boterea are gehiago kontzentratzea lortu nahi da.

### **3. Oztopo batzuentzat, eskubide besteontzat.**

Defendatzaileen arabera, merkataritza jarduerari “traba” egiten dioten oztopoak ezabatzea ahalbidetzen du TTIPak. Traba hauen artean, ohiko muga-zergak izango genituzke alde batetik. Hauek, batez beste, nahiko maila baxua dute dagoeneko: %5,2 inguru dira EBrentzat eta %3,5 AEBentzat. Hala eta guztiz ere, sektorearen eta produktuaren arabera, Atlantikoaren alde bateko eta besteko portzentajeen aldea nabari daiteke. Esate baterako, industrien produktuen gaineko muga-zergak baxuagoak izan ohi dira EBn sartzen diren produktu amerikarrentzat, baina,aldi berean, inportatutako auto estatubatuarrek %10an zergapetuta dauden bitartean, AEBn saltzen diren automobil europarrei %2ko tarifa ezartzen zaie.

Nekazaritza-produktuen sektorean berriz, giltzarri diren zenbait sektoretan muga-zergak altuagoak dira. Hauentzat, golpe latza joka lezake akordioak. Berthelot-ek jarrera irmoa du: “merkataritzaren gaineko muga-zerga oro ezabatzeak aurrekaririk ez duen lurrikara sortuko luke, ekonomia, gizarte, ingurugiro eta politikaren esparruan, ez European bakarrik, baita garatzeko bidean dauden herrialdeetan...”.

Baina muga-zergez gain, benetan paretik kendu nahi dituztenak beste-lako oztopoak dira: mozkiniei traba handiena egiten dieten oztopo horiek, gizarte, langileria eta ingurugiroa babesten dituzten berberak dira. Izan ere, ohiko arantzel-tarifak hondoratzearekin batera, ingurugiro, osasun, lan

eta gizarte esparruetan eragina duten babes-neurriak desagerraraztea ekar dezake berarekin akordioak.

TTIP akordioaren bitartez, Atlantikoaren alde bietako araudiak bateratu nahi badira, aurreikusten da bateratze hori Europako babes-neurriak AEBko mailetara jaitsiaz egingo dela. Ondorioak larriak izan daitezke. Hau da, helburua liberalizazio maila altuagoa bermatzea bada, argi dago AEB eta EBko arau eta legedia harmonizatzeko bidea, europar estandarrak AEBko mailetara jaitea dela aukera bakarra. Horrek, Europar babesleagoak diren araudiak ahultzea inplikatu du. Halaxe ondorioztatzen da, Europako Batzordearen azalpenetatik: “aduanetan ordaintzen diren zergak ez dira merkataritzari traba egiten dioten hesi nagusiak, baizik eta muga horiez gaindiko barne araudiak, segurtasuna eta ingurumena babesten dituztenak (...) Merkataritza hitzarmen honen helburua, korporazioen mesederako kostuak eta premiazkoak ez diren atzerapenak murriztea da”.

Kontua bestelakoa litzateke, merkataritzaren liberalizazioa bultzatu ordez, xedea, gizartea, ingurumena, eta biztanleriaren gehiengoa babestea balitz.

Jean Gadrey ekonomialari frantsesak, zer-pentsatua ematen digu bere hurrengo adierazpenarekin<sup>1</sup>: “zer espero dezakegu harmonizazioaz, Kyotoko protokoloa sinatu ez duen herrialdearen neurrira iristeko Europako babes-neurriak hustu behar badira? Zer itxaron dezakegu, nazioarteko hainbat hitzarmen (Aniztasun Kulturala, Bioaniztasuna, LANEren baitakoak...) onartu ez dituen herrialde baten mailara parekatze-  
ra bideratuta dagoen akordioaz?”.

#### **4. Mexikora begira: zer ikusi hura ikasi.**

2014an hogeitun urte bete dira Ipar Ameriketako Merkataritza Libreko Hitzarmena (NAFTA) abian jarri zenetik. Kanada, Ameriketako Estatu Batuak (AEB) eta Mexikoren artean sinatutako akordio honek balantze negatiboa utzi du azken herrialdean. Pintzelada gutxitan bada ere, NAFTA indarrean dagoenez geroztik Mexikon gertatu dena aztertzea ezinbestekoa zaigu, AEB eta EB adosteko prest dauden akordioak zer ekar dezakeen baloratzeko orduan. Zer ikusi, hura ikasi.

Ahalegin honetan, ohartuko gara oso zaila dela mugak zehaztea, neoliberalismoak, NAFTA hitzarmenak eta 90ko finantza krisiak Mexikon utzitako kalteen artean. Esan daiteke, MLHak orokorrean, eta NAFTA zehazki,

---



---

kapitalismo basatiak bere atzaparrak luzatzeko duen beste tresna -oso erabilgarri- bat direla.

Manuel Hernandez Bonilla kazetariak (UAM) hitzarmenaren balantze izkorra sei ataletan laburbiltzen du: ekoizpen nazionala inportazioekin ordezkatu izana; pribatizazio prozesuen ondorioz elite jakin batzuk aberastu izana; biztanleriaren erosahalmena eta enplegua hondoratu izana; landa-gunearen eta natur baliabideen suntsitzea; erbesteratze derrigortua (migrazioa) eta azkenik, krimen antolatua (eta ondorioz krisi instituzionalaren) goieneko maila. Den-denak, Mexikok egun bizi duen egoera latzaren adierazgarri dira.

Gobernu Federalak berak ere onartzen du Mexikok 30 urteko geldialdi ekonomikoa bizi duela. Hernandez Bonillak erabateko lotura ikusten du krisialdi ekonomikoaren, eta duela 30 urte Mexikon aplikatzen hasitako errezeta neoliberalekin. Zalantzarik gabe, korrante eta aro neoliberalaren ikurra NAFTA dugu. Izan ere, hitzarmenak ekarritako merkataritzaren liberalizazioa eta pribatizazioak, politika eta enpresa munduko kupularen mesederako izan dira, eta zigorgabetasun sistemikoa dela medio, dirutza pilatu dute.

Sare produktiboari dagokionez, Mexikok ekoizteari utzi diola esan genezake, haren ordeztatzeko. Atzerriko Inbertsio Zuzena (AIZ) hazi egin den arren, herrialdeko produkzioa ez da hazi. Merkataritzaren liberalizazioak balio erantsi handiko enpresa askoren desegitea ekarri du, enpresa txiki eta ertainen hazkundea sustatzen zuten enpresen itxiera, alegia.

NAFTA indarrean sartu zenez geroztik, herrialdeko industriak nolabaiteko itxuraldaketa izan du: balio-erantsi handiko ekoizpen faseak, ekoizpen katean azkenetakoa den muntaia jarduerekin ordezkatu dira. Mexikon finkatutako enpresa multinazionalak lehengai gehienak inportatu egiten dituzte, esportaziora bideratuta dauden produktuak ekoiztu ahal izateko. Tartean, esan bezala, balio erantsi txikia duten ondasunen ekoizpen fasea dugu. Pantaila lauen ekoizpena horren adibide da: Mexikoko esportazio produktu garrantzitsua den arren, amaierako produktuaren balio erantsiaren %5a baino ez da bertan ekoizten.

CEPALeko datuen arabera -Comisión Económica para América Latina y el Caribe-, Kanada eta AEBren aldean, AIZak Mexikoko barne ekonomian uzten du onura gutxien. Era berean, Mexikok beste herrialdeekin dituen 45 merkataritza hitzarmenen artean, 30ekin dauka merkataritza defizita. Gregorio Vidalek (UAM, Universidad Autónoma Metropolitana) azaltzen du esportazioetan oinarritutako eredu hau ez dela gai hazkunde ekonomikoa

jasangarria sustatzeko. Izan ere, NAFTAri esker, Asiatik datozen inportazio produktuak Mexikoraino iristen dira AEBren bitartez.

Deskribapen labur honen artean eta gaur egun, Europa Hegoaldeko herrialdeetan gertatzen ari denaren artean dauden antzekotasunak, ez dira kasualitate hutsa. Ikus dezagun atalez atal.

*Finantza-sektorea: sektorearen pribatizazioa eta zorren nazionalizazioa*

Miguel de la Madriden gobernuarekin hasi zen pribatizazioen aroa: 294 enpresa publikoren deuseztatu ziren, 72 bategite bultzatu ziren... Baina, esku pribatuetara pasatu ziren enpresen tamaina eta garrantziari erreparatuz, Salinasen gobernu-aldian jo zen pribatizazio prozesuen gailurra.

1994ko krisialdi ekonomikoaren eta berehalako bankuen porrotaren ostean, gobernuak Mexikon inoiz egin den finantza-erreskaterik handiena eraman zuen aurrera, banka sektorearen zor pribatua zor publiko bihurtuz. Estatuak erreskate prozesuan zehar xahututako dirutzak, bikoiztu eta hirukoiztu ere egin zuen pribatizazio garaian eskuratutakoa. Jakina, diru publikoaz esku hartutako banku horiek atzerriko kapitalari saldu zitzaizkion gerora.

Hamalau urte igaro ostean, banku sektorearen erreskateak eragindako zor publikoa ez da oraindik murriztu; alderantziz, ia %20ean handitu da. Bitartean, NAFTA indarrean jarri zenetik, nabarmen uzkurto da bankuek emandako kredituaren bolumena; 1994an BGPren %47,4 izatetik, ozta-ozta %20ra igaro da 2012 urterako. (CEFPren arabera, Centro de Estudios de las Finanzas Públicas).

Kreditu gabeziaren eragina, ekoizpenaren eta enpleguaren gutxitzean islatu da. Izan ere, enpresa txiki eta ertainek lanpostuen %74 sortzen duten arren, enpresa hauen %15ak baino ez du finantzazioa eskuratzeko sarbi-dea.

Guzti hau, ez al zaizue oso ezaguna egiten?

*Aberastasunaren kontzentrazioa esku gutxitan*

NAFTA abian jarri aurreko urteetan, herrialdeko hamalau aberatsenek 22,900 milioi dolar pilatzen zuten. Gaur egun, 20 urte geroago, milioi askoko pertsonen kopurua antzera mantendu den arren, hauek metatzen duten aberastasunak izugarri egin du gora. Hala, Forbes-en datuen arabera,

---

148,500 milioi dolar metatzera iritsi dira, 1994an baino %645 gehiago, alegia.

Enpresari hauei mesede itzela egin zaie; inoiz ikusi ez diren mozkinak bildu dituzte. Etekin handiak bermatu ahal izateko legeak haien neurria moldatu dira, bai sektore produktiboan, baita finantza sektorean ere. Azken honetan, araudia oso leuna da eta berehalako irabaziak ahalbidetzen dira (Arturo Ortíz Wadeymar, UNAMeko aditua).

Azken bi hamarkadotan jasotako lanpostuen galera ulertzeko aintzat hartu beharreko elementuak hiru dira: atzerrirako kapital-ihesa, ekoizpenaren beheraldia eta, azkenik, eredu neoliberalak baimendu duen enpresa-eliteen aberastasunaren hazkunde itzela.

### *Enplegua eta lan baldintzak*

NAFTAren ondorioz, parte hartzen duten hiru herrialdeen arteko merkataritza fluxua hirukoiztu egin da, baina ez du agindutako 20 milioi lanposturen sorrera ekarri. Politika Ekonomikoaren Institutuaren arabera, esportazioaren hazkundeari esker AEBan lanpostuak sortu ziren arren, kontuan hartu behar dira inportazioen hazkundearen ondorioz deuseztatu zen enplegua. Promestu ziren onuretatik oso urruti, balantzea negatiboa izan da; 20 milioi lanpostu sortu ordez, milioi bat deuseztatu dela estimatzen da.

Lan esparruaren inguruko datuak engainagarriak izan daitezke. Hauen arabera, biztanleria aktiboaren % 4,8-%5a dago langabezia. Baina, kontuan hartu behar da langileen %60ak ekonomia informalean diharduela; beraz, ez dute zergarik ordaintzen eta ez daude Gizarte Segurantzaren barruan.

Eszenatoki erabat krudela erakusten digute UNAMak jaurtitako datuek: langile batek oinarrizko elikagai-saski bat eskuratu ahal izateko egin beharreko lanorduen kopurua bikoiztu egin da hogeitun urtean: 1994an 12,53 lanordu behar baldin baziren, 2013ko apirilean 23,44 ordu behar ziren. Bestela esanda, NAFTA indarrean sartu aurretik gutxieneko soldatarekin eskura zitekeen elikadura-saskiaren erdira baino ez da iristen gaur egungo langile-klasea. Eskerrak hitzarmenaren sustatzaileek, liberalizazioak prezioen gutxitzea ekarriko zuela iragartzen zuten...

Aurreikusitakoren kontrara, NAFTAk langile klasearen bizi baldintzen narriadura handiagoa ekarri du berarekin; erosteko ahalmena hondoratzearekin batera, pobrezia nabarmen egin du gora, nahiz eta azken hogeitun urteotan pobrezia aurkako borrokara gobernu federalak inoiz baino diru

gehiago bideratu duen (David Lozano, Centro de Análisis Multidisciplinario).

*Nekazaritza sektorea: liberalizazio azeleratuaren adibide*

1994ean NAFTA indarrean sartu zenetik gehienez 15 urtetako epea ezarri zen hiru herrialde sinatzaileen arteko (Kanada, AEB eta Mexiko) merkataritza guztiz liberalizatzeke. Nekazal produktuak aparteko kapitulu batean landu ziren. Bertan produktu gehienen berehalako liberalizazioa eskatzen zen, baina “produktu sentikorrek” pakete horretatik kanpo geratu ziren. Hau da, produktu ahuleneztat liberalizazio konpromisoak betetzeko epe malguagoak ezarri ziren. Aldi berean AEBek lortu zuten bere barne nekazaritza babesten duten programak mantentzea. Bere interesen mesedera-ko direnean, posible da MHL akordio batean salbuespenak barneratzea.

Nekazaritza sektorean, Mexikok abantaila konparatiboa ei zuen eta NAFTAren bitartez berak lortu behar zuen onura gehien. Egia da AEBkiko merkataritza hazi egin dela, baina AEBtako esportazioen balioa gehiago hazi da, eta erritmo azkarragoan gainera. Artoaren liberalizazio prozesua 2008 urtera arte atzeratu zen, berau ere produktu sentikorren artean zego-elako. Baina 15 urte iraun behar zuen prozesua, 3 urte baino gutxiagoan gauzatu da. Mexikoko gobernuak inportazioari ezarritako kuotak adostutako limiteak gainditu dituzte, eta horrek artoaren ekoizpen nazionalen eragina izan du. Horren emaitza harrigarria da: liberalizazioaren ondorengo hilabeteetan Mexikok AEBtatik inportatzen zuen arto kantitatea bikoiztu egin zen. Gaur egun, AEBtako artoak eskari nazionalaren ia herena estaltzen du. Liberalizazio azeleratuaren adibide honek agerian uzten du NAFTAk daukan ezintasuna akordioak ekarri behar zituen onurak errealitate bihurtzeko.

Bada esaera bat Mexikon, hala dioena: Jainkoarengandik hain urrun, eta AEBtatik hain gertu<sup>2</sup>. Ondo barneratuta dute mexikarrek, auzoko herrialdearengandik hurbil egoteak egiten dien mesede gutxia.

## **5. Nolakorekin ibili hainbatean irudi**

Hitzarmenaren negoziazio prozesua erabat opakua izaten ari da. Filtratu diren dokumentu gutxi batzuek salbu, dena isilpean gordetzen ari dira. Europako Batzordeak onartu egin du, gutun publiko baten bitartez, TTIParekin lortutako dokumentu guztiak konfidentzialak izango direla gutxienez 30 urtez.

---

### Artorik gabe, herririk ez

Mexikon 2003an aurrera eramandako kanpaina batek artoaren ekoizpenaren babesa aldarrikatu zuen, “Sin maíz, no hay país” lelopean (Artorik gabe, herririk ez). Aldarrikapen horien artean, “artoak sortu gintuen gu, eta guk sortzen dugu artoa” esaldia entzun zitekeen. Artoak Mexikon betetzen duen papela oso garrantzitsua da. 10.000 urtetik gora darama artoa ekoizten eta herrialdeko ekoizpenik inportanteenetakoa da. NAFTA (North American Free Trade Agreement) indarrean sartu zenetik, nekazal produktuen gaineko dumpingaren bitartez, Mexikoko artoaren sektoreak kalte nabarmenak jasan ditu. EEBBak mundu mailako arto esportatzaile handiena da, eta Mexikoren hornitzaile nagusia.

Estatubatuar nekazaritza politika espresuki diseinatua izan da esportazioako soberakinak sortu eta ekoizle nazionalerentak ziurtatzeko. Dumpingaren bitartez haien esportazioak prezio artifizialki baxuetan kokatzen dituztenean, garapen bidean dauden herrialdeetako ekoizleak “suntsitzen” dituzte. Mexikon, biztanleko arto kontsumoa handienetakoa den herrialdean, artoaren merkatu kuota herenaren jabe egin dira EEBBko enpresa esportatzaileak.

EEBBei mundo mailako arto merkatuaren %70a dagokie eta haien esportazio bolumenaren garrantzia dela eta, artoaren mundo mailako prezioan eragin handia dute. Zer esanik ez, prezioetan duten botere hori nabarmenagoa da Mexiko bezalako merkatu batean, kontutan hartzen badugu EEBBtatik datozen esportazioetara irekita dagoela.

Norekin biltzen ari ote diren ere, ez dute garden adierazten. Corporate Europe Observatory behatokiak adierazi du, Europako Batzordeak 100 batzarretik gora izan dituela “alde interesatuekin”. Alde interesatu horren barruan gizarte zibila irudikatzen duenak jai dauka. Izan ere, bileren %90etik gora enpresa eta presio-talde handiekin izan dira.

Hitzarmena onartzearen gaineko azken hitza, Europako Batzordeari dagokio. Ezerk ez du behartzen gizartean kontsulta bat egitera. Aukera bakarra gobernu nazionalen esku dago: herrialde bakoitzak erabaki deza-ke erreferendum edo kontsulta bat egin ala ez egin. Espainiar estatuak, baina, dagoeneko erabaki du herriari ez galdetzea; Diputatuen Kongresuak Ezker Batuaren proposamena baztertu zuen, PP, PSOE, EAJ, CIU eta UPyD alderdien botoari esker.

2014ko udaberri bukaeran, dokumentu batzuk filtratu dira, ehun orritik gora. Dokumentu horietan, Europako herrialde bakoitzaren ahultasunak gutzit bistaratzen dira. Zer esan nahi du? AEBko presio-taldeek aurrez ezagutu dezaten zein puntutan negoziatu behar duten, haientzat oztopo izan daitekeen traba oro aurretik kendu ahal izateko. Hasierako ohar batean, EBk argi uzten du gauza bera eskatu diotela AEB-ei ere; hau da, espero dute AEBko estatu bakoitzak ere gardentasunez plazaratuko dituela bere ahultasunak, gero horien gainean atzaparrak sartu ahal izateko.

Hurrengo ataletan, TTIParen negoziazioen erdigunean dauden zenbait elementu aztertuko ditugu. Eredu kapitalistak, tamalez, posible du bere atzaparrak gehiago zorroztu eta gizartean sakonago eta bortitzago iltzatea. Goserik handiena duten sektoreek, haien irabaziak areagotzeko amorratzen daude. Harrapakinik handienak bereganatu nahi dituzte; oraindik privatizatzeko dauden sektoreak, legez babestuta daude sektoreak, mozkin handiak ematen dituztenak... Europako Batzordea zeinekin biltzen ari den jakitea, nahikoa da zertan ari diren susmatzeko.

Nolakorekin ibili, hainbatean irudi, dio esaerak.

### *Lan esparrua*

TTIParen balizko onuren artean, defendatzaileek lanpostu berrien sorrera aurreikusten dute. Datuak estimatzerakoan, aldiz, denak ez datoz bat. Obamaren gobernuko Kanpo-Harremanen departamentuak jaurtitzen ditu daturik baikorrenak: Hitzarmenak mundu mailako merkataritzaren herena liberalizatzear gain, milioika lanpostu berri sortzeko aukera ekarriko luke. Promesa tentagarria, akaso, AEBko hazkunde ekonomikoa motela eta Europako langabezia tasa altuak ikusita.

Milioika, baino, 740.000 lanpostura jaisten du aurreikuspena Washingtonen aurkeztutako beste ikerketa batek<sup>3</sup>, eta zifra hori, hitzarmena oso-osorik aplikatutakoan lortuko litzateke. Europako Batzordeak berriz, 400.000raino beheratu du bere estimazioa. Hazkunde ekonomikoa-ri dagokionez, BPGaren %1eko hazkundeaz hitz egiten da, baina, dagoeneko Europako Batzordeak, %0,1era jaitsi du. Lanpostuen sorrera ere, ikustear dago.

Europako Batzordeak TTIParen inpaktuak aztertzeko egindako txosten batean, onartzen da hasieran, merkataritzaren hazkundearen eraginez, industria sektore kaltetuenak berregituratu beharko liratekeela. Horien artean leudeke, haragi-industria, ongarrien sektorea, bioetanola, azukrea, garraio-ekipoen eta metalen sektorea besteak beste. Berregituraketa edo doikuntza esatea, lanpostuen galera ezkutatzeko eufemismoa baino ez da.

Dena den, TTIParen onuren artean, zenbait sektoretan enplegua sortuko baldin bada, espero daiteke beste sektore batzuetan enplegua deuseztatzea. Zentzu honetan, ez TTIPak, ezta Europako Batzordeak ere, ez dute inolako neurririk aurreikusten enplegua galdu lezaketen pertsona horiei begira.

Aipatu dugu dagoeneko AEBk ez dituela lan esparruan LANERen hitzarmeneko elementu batzuk onartu; sindikalismo praktikak eta elkartzeko

eskubideekin lotutakoak, besteak beste. Azken urteotako krisialdiaren tes-tuinguruan, EBko soldatei gogor erasotu diete. TTIPa, Europako lan-lege-dia AEBko mailaraino degradatzeko tresna izan liteke, eta horrek, sindika-lismoaren aurkako legeak ekar litzake berarekin.

AEBko Lan Federakuntzak eta Industria Antolakundeen Kongresuak adierazi dute, Ameriketako estatuen arteko lehiakortasuna bizia dela. Beraien arteko beheranzko gerra abian da, soldata, segurtasun eta osasun neurriak direla eta. Europako Batzordeak Europako Lan Legea berrikusi beharko litzatekeela iradoki du, AEBren atzerriko inbertsioak uxatzeko arriskua minimizatu eta inbertsioak beste herrialde batzuetara bidera dit-zaten saihesteko. Ildo honetatik, pentsa liteke lan esparruan aro berri bate-an hasieran gaudela. EBko babes-neurriak ahuldu-ezabatzeaz gain, lehia larria piztu liteke Europako herrialdeen artean.

### *Ingurumena*

Europako Batzordeak egindako txosten batean aitortu egiten da TTIPak ondorio kaltegarriak ekarriko lituzkeela ingurumenean. Txostenetan aurrei-kusten da merkataritzaren hazkundeak kutsadura handitu eta baliabide naturalen agortzea areagotu egingo duela.

Horretaz gain, ingurumena babesten duten neurriak lobbyentzat ozto-po diren heinean, TTIParen negoziaketetan pisu handia hartzen dute. Horren adibide da, Europako Ingurumen politikaren muina den zuhurtzia printzipioa. Izan ere, TTIPren negoziazioen hartzen duten norabidearen arabera, pentsa liteke printzipioa bera ezbaian gera daitekeela.

### **Zuhurtzia printzipioa**

Europako Batasunean zuhurtziaren printzipioa aplikatzen da (principio de precaución); ingurumenean edota osasunean kalterik egiten ez duela probatzen ez den bitartean, ez da baimentzen. Gainera, enpresari dagokio kalterik egiten ez duela frogatzea.

AEBtan aldiz kontrako printzipioa aplikatzen dela esan daiteke, arrisku printzipioa: kaltegarri dela zientifikoki eta zalantza izpirik gabe frogatu arte, ez dago debekaterik. Kasu horretan, ardura ez dagokie enpresei.

2013an Europa Business gailurrean, Europako enpresa handienak bildu ziren. Bertan, ingurumena babesten duen legediari leporatu zitzaion Europako herrialdeek AEB eta Txinako enpresekiko bizi duten desabantaila egoera.

Ingurumen araudia leunagoa da AEBtan EB-an baino, eta horren adibide da, frackingaren kasua. Gas naturala erauzteko fracking sistema hedatuagoa dago Ameriketara baino: urtean 11.400 baino putzu gehiago irekitzen dira AEBtan. Sektore honetan diharduten enpresek, begiak Europako gas erreserbetan jarrita dituztela, frackinga mugatzen duten araudiak noiz ezabatu zain daude.

Beste behin ere, agerian geratzen da zer nolako interesa duten lobbyek AEB eta EB-ren arteko desberdintasunak murrizteko.

#### *Zerbitzuen liberalizazioa: finantza sektorea.*

Hasiera batean, uste zen finantzen sektorearen liberalizazioa hitzarmenaren helburu handietako bat zela. Erresuma Batua, Europar Batasunaren sostenguarekin batera, finantza merkatua gehiago liberalizatzeko presioa egiten aritu dira. Berriki filtratu den dokumentuak, baina, kontrako informazioa helarazi digu: negoziatioetatik at geratzen den arlo bakarria finantza-esparrua izango ei da. AEBak horrela nahi izan duelako, erabaki da hau horrela izango dela.

Gainontzeko adibideetan ez bezala, finantza-sektorearen gaineko erregulazioa zorrotzagoa da AEBtan, Europako aldean baino. AEBtan, beldur dira negoziatioen eraginez beraien araudia leundu beharko ote duten, eta horregatik erretiratu dute mahaigainetik. Honek bi gauza erakusten dizkigu. Batetik, argi geratzen da bi eskualdeen arteko parekatzea, minimoetara joaz egingo dela. Bestela, AEBak ez luke zertan beldurrik izan. Bestetik, hitzarmenaren izaera asimetrikoa erabat agerian gertatzen da. Stiglitzek aipatzen zuen asimetria: AEBk akordioa bere interesen neurrira egiteko duen gaitasuna.

#### *Osasuna*

Jakina da osasun publikoaren etorkizuna jokoan dagoela. Azken urteetako finantza krisiak eta austeritate politikek sakon higatu dute osasun publikoaren izaera iraunkor, eskuragarri eta unibertsala. Liberalizazioa bultzatzeko asmoa duen akordio honek pentsarazten digu ildo beretik jarraituko dela, eta AEB eta EBren arteko parekatzea, behetik egingo dela. Gainetik, kontuan hartu behar da, patenteen inguruko legeak indartzen badira, zenbait sendagairen prezioa igotzeko arriskua dagoela.

Ingurugiro eta osasunaren esparruan, Atlantikoaren bi bazterretan kontrakoak diren bi printzipio dira nagusi. Europako “zuhurtzia printzipioaren”

---



eta AEBko “arrisku-printzipioaren” arteko hutsunean 30.000 produktu kimiko ditugu. Produktu hauek, bular eta barrabiletako minbiziarekin, antzutasunarekin eta diabetearekin lotuta egoteko arriskua dutenak. TTIP akordioak, EBan oraindik debekatuta dauden halako produktuei ateak ireki diezazkieke.

Osasun zerbitzuen kontratazioa merkatura irekitzeko desioa bat dator zerbitzuen sektorea liberalizatzeko xedearekin. Horretarako, hitzarmenaren barruan arau batek nazioarteko korporazioei baimena eman beharko lieke, orain arte sektore publikora mugatu diren lehiaketetan parte hartu eta osasun zerbitzuak eskaini ahal izateko. Nazioarteko multinazionalak, bide honetatik, herrialde barruko enpresen tratu “berbera” jasotzea berma lezakete. Osasun zerbitzuen kontratazioan, atzerriko enpresei bidea irekitzeak tokian-tokiko gobernuei erabakitzeke-gaitasuna murriztea ekarriko luke, aurrerantzean ezingo luketelako kontrolatu lehiaketetara aurkezten diren enpresen pribatuen kantitatea, ezta tamaina ere .

Wikileaks-ek filtratu berri duten dokumentu baten arabera, arriskua ere larriagoa da: webgunearen arabera, osasun zerbitzuez gainerako zerbitzu publikoak multinazionalen esku utziko ditu Europar Batasunak.

### *Jabegoaren eskubideak*

Negoziazioen erdigunean dagoen beste kontu bat, Jabego Intelektualaren gaineko Eskubideak (JIE) dira. Afera hau ez da berria; 2006an AEBaren bultzadaz, mundu mailan Faltsutzearen aurkako Merkataritza Hitzarmenak negoziatzen hasi ziren (ingelesezko akronimotik ezagunago, ACTA, Anti-Counterfeiting Trade Agreement).

Hitzarmenak polemika handia piztu bazuen ere, 2012an EB-k onartu egin zuen. Onartu zen urte berean, legea atzera botatzea lortu zuen Europako Parlamentuak. Pentsa liteke ACTAk arautu nahi zituen zenbait kontu TTIParen negoziaketetan sartuko direla, eta horren beldur dira TTIParen aurkako sektoreak.

Esparru honetan, beste behin ere, Atlantikoaren alde bietako araudien artean dagoen tarte nabarmena da. AEBtan, bezeroen datu pertsonalak erabiltzeko orduan enpresek oso muga gutxi dute. Aldiz, EBean, bezeroen pribatutasuna babestu asmoz, haien datuak zorrotzago babesten dira. Facebook, Microsoft eta Googleek, hortaz, interes handia dute Jabego Intelektualaren gaineko Eskubideen kapitulua haien aldera eramaten.

Argi eta garbi eskatzen dute bi aldeetako industria-elkarte handienek (BusinessEurope eta AEBko Merkataritza Ganbera):

“merkataritza elektronikoaren inguruan, ahalik eta ikuspuntu liberalena barneratzea posible izan beharko litzateke...eta guztiaren gainetik, saihestu behar dugu, pribatutasuna, (...) eta babesaren alde zorrotzegia den estrategia bat hartzea”.

Honekin lotuta, farmazia sektoreak anbizio handiko gai-zerrenda dauka TTIPari begira. Batetik, patenteen bitartez, monopolio eskubiderako epealdiak iraunarazi nahi dituzte. Baina horretaz gain, demokratikoki aukeratuak

### Industria farmazeutikoaren bi adibide

1) Zein mekanismo daude patenteen bidez, industria farmazeutikoaren mozkinak areagotzeko?

- Sendagai generikoak erabiltzen hasteko egin behar diren tramiteak atzeratzea. Gaur egun posible da tramite hauek egiten hastea patentea irautsi baino lehen.
- Patente-araudien bateratzea EB eta AEBtan. Egun desberdintasun nabarmenak daude haien artean, araudia zorrotzagoa da EBean eta horren isla da bertan patente gutxiago eta lehiakortasun handiagoa egotea. Funtsezkoa da hori sendagaien eskuragarritasuna eta berrikuntza eraginkorra sustatzeko.
- Marka erregistratuak ez mugatzea: jatorrizko enpresek luzatu nahi izaten dute marka edo izen komertzialaren erabilera, eta horrek berriz ere generikoek erabilera mugatzen du; mediku edota farmazeutikoek agintzen dituzten sendagaiak ordezkatzeko oztapa dezake.
- 12 urtera luzatu nahi da sendagai biologikoen datu-esklusibotasuna. Datu-esklusibotasuna farmazia-sektoreek produktu baten gainean duten merkatu-esklusibitatea luza dezakete, behin patentea irautsi ostean.

2) Saio klinikoaren gardentasunaren legea: TTIPan bertan behera gelditu daitezkeen legeak: arriskuaren adibide bat

- Joan den apirilean lege garrantzitsua atera zen aurrera Europako Parlamentuan: Saio klinikoaren Gardentasun legea. Farmazia-industriak presio kanpaina bortitza egin duen arren, ez du lortu legea atzean gelditzea. Gizartearen segurtasunaren alde egiten du gardentasunaren legeak. Orain arte saio klinikoaren txostenak “sekretu komertzialaren” eraginpean egon dira. Legearen onartzeak, txostenak publiko eta eskuragarri egin ditu. Herritarren aldeko lorpen hau, zaplaztekoa izan da farmazia sektorearentzat.
- Derrigorrezkoa izango da, hasi baino lehenago, saio kliniko guztiak eskuragarri den datu-base batean argitaratzea.
  - Saio klinikoak amaitu eta gehienez urtebetera, egindako saio guztien emaitzen laburpen bat argitaratu behar da.
  - Hiritarrek ulertzeko moduan, saio klinikoaren emaitza garrantzitsuenak laburtzen dituen aurkibidea argitaratu behar da.
  - Saio kliniko guztiak argitaratu ez dituen sendagairik ez da kaleratuko.
  - Isun handiak aurreikusten dira betebeharrak betetzen ez dituzten enpresentzat.

izan diren gobernuek osasun publikoa babesteko ezarri dituzten babes-neurriak daude jomugan. Horien artean, oraintsu aurrera atera den saio-klinikoen datuen gardentasunaren legea.

1994 urtean, Munduko Merkataritza Erakundearen baitan, Jabego Intelektualaren Eskubideen inguruko araudia abian jarri zen<sup>4</sup>. Gai eztabai-dagarria da, izan ere, patente eta jabego intelektualaren gaineko bestelako neurrien bitartez, sendagai generikoen erabilera mugatu egiten da. Hala ere, orain arte, Osasun Publikoa bermatzearen aldeko zenbait neurri barne hartu ditu akordioak.

TTIParen negoziazioek berriz ere farmazia-lobbyari aukera irekitzen dio jabego industrialaren babesa indartu eta produktuen eskusibotasuna luza dezaten exijitzeko. Kontuan izan behar da, edozein monopolio luzatzeak, mozkin ikaragarriak ematen dizkiola farmazia-sektoreari. Zentzu honetan, lobbyaren interesak, patenteen epeak luzatu eta generikoen erabilera atzeratzeko norabidean doaz.

### *Elikadura Segurtasuna*

Elikadura-segurtasuna eta -burujabetzaren esparruan ere, asko dira hitzarmenak hankaz gora jar ditzakeen zedarriak. Beste behin ere, elikagaien

#### **Hormona eta kloro tratamendua jaso duen haragia**

XX. mendearen bukaeran, EBak zenbait debeku ezarri zituen AEBtatik zetozen elikagai jakin batzuen gainean, giza-osasunaren gainean azaltzen zituzten arriskuen aurrean. Horren bi adibide dira hormona-tratamendua jasotzen duten behikien kasua, edota kloroa erabiltzen duen txerri-industriarena.

Behi-ganaduaren industrian, produktibitatea handitzeko asmoz, Bovine somatotropin izeneko hormonekin tratatzen dituzte animaliak. Europan, horiek minbizia eragiten duenaren susmoa dago, eta produktu hauen kontsumoa debekatuta dago. Ractopamina Klorhidratoa, txerriak gizentzeko erabiltzen den produktua da, kloroa duen produktua. Europako merkatuetaraino iritsi ziren produktu honen arrastoa zuten txerrikiak, eta horiek ere debekatu egin ziren.

Bi produktu hauek debekatuta egoteak, kontsumitzaileoi nolabaiteko babesa ematen digu, baina Nekazaritzako Elikagaien Industria sektoreko multinazionalak, negozioa egiteko muga, oztopoak ikusten dituzte hor. Elikagaien Industria sektoreak, beraz, nondik estutuko duen asmatzen ez da zaila. Kezkagarria da, behin neurri babesle horiek deuseztatuta, "eredu amerikarra" nagusituko dela pentsatzea. Horrek sektore osoan izango luke eragina: ekoizpen prozesuetatik hasi eta kontsumo eta banaketa-sareetaraino.

Eredu amerikarrak dakarren beste ezaugarri bat nekazaritza-familiarraren desagerpena da: AEBtan 2 milioi ustiapen baino ez daude, EBean 13 milioi dauden bitartean. Kalitatezko zenbait produkturentzat bereizgarri den "jatorrizko izendapena" ere traba izan daiteke Elikagaien Industria Sektorearentzat.

ganean EBak duen araudia, AEBtan baino zorrotzago edo babesgarriagoa da, kontsumitzaileen alde. Transgenikoak debekatuta daude European eta arto transgeniko bakarra dago legeztatuta. Ameriketan, berriz, asko eta asko dira genetikoki eraldatutako organismoak. Orain arte, elikagai-industriak ez ditu Europako politikak bereganatu eta horregatik, pentsa daiteke, TTIPen negoziazioetan esparru honetan muturra sartzen saiatuko direla.

## 6. Subiranotasunaren galera: enpresa-estatu auziak

Agian, MLHen xedapen nabarmenena, Estatu-Inbertitzaile auziei dago-kiena litzateke. Xedapen honen bidez, atzerritar inbertitzaileei bidea irekitzen zaie beste herrialderen bateko araudia saihestu eta salatzeko: nazioarteko epaitegietara joaz, edozein Estatu salatu dezakete Aldebiko Inbertsio Hitzarmen (AIH) baten klausularen bat ez betetzea egotzita. Epaitegi hauek ezarritako kalte-ordainek “galdutako etekinak” hartzen dituzte aintzat. Hau da, inbertitzaileak salatu dituen araudi eta legediak bere jardunean ekarri dizkion oztopoen ondorioz, herrialde horretan zenbateko etekinak “galdu dituen” kalkulatu da.

Laburki, gisa honetako inbertsio-akordioek hiru arazo nagusi planteatzen dituzte, Estatu-Inbertitzaile auziekin lotuta:

- 1) Batetik, testu hauen lausotasuna dela medio, praktikan edozein Estatuko edozein proposamen politiko auzitara eramateko arriskuan geratzen da. Adibidez, oso zaila da AIHtan aipatu ohi den “tratu justua” zertan datzan jakitea. Hori dela eta, oso era zabalean interpretatu izan dituzte nazioarte arbitroek klausula honekin lotutako auziak.
- 2) Estatu-Inbertsore auziak erabateko opakutasunean ebatzi ohi dira. Bestelako prozesamendu juridikoren aldean, AIHtik eratorritako Estatu-Inbertsore auziak “ateak itxita” gertatu ohi dira; politika publikoak jokoan dauden arren, ez zaio gizarte zibilari informaziorik ematen. Gainera, nazioarteko arbitrajearen diharduten pertsona gutxien artean interes-gatazka handiak daude. Arbitroek, kasu bakoitzeko kobratzen dutenez, pizgarri handiak dauzkate salaketa berriak sustatzeko. Nazioarteko arbitraiaren negozioak kasuko 5 milioi dolar mugitzen dituela kalkulatu da, eta abokatuen lana orduko 1.000 dolarretara irits daiteke.
- 3) Estatu-inbertitzaile arteko auziak norabide bakarrekoak eta esklusiboak dira. Hau da, batetik, inbertitzaileak estatuak salatu ditzaketan arren, ez da alderantziz gertatzen inbertitzaileek AIHren atalen bat

betetzen ez dutenean, edota giza eskubideak urratzen dituztenean. Bestetik, atzerriko inbertitzaileak dira Estatuak salatu ditzaketen bakarrak. Gisa honetako prozeduren kostu handia kontuan hartuta, praktikan enpresa multinazionalak dira bide honetara jotzeko gaitasuna duten bakarrak. Gainera, multinazionalak erabaki dezakete, munduan dituzten egoitza guztien artean, zein Estatu salatzen duten. Munduko Bankuak berak ere onartu izan du epaiketa hauek “asimetria itzela” sortzen dutela “AIHtik eratorritako Atzerriko Inbertsio Zuzenaren fluxurik handiena, norabide bakarrean mugitu ohi delako”.

Finean, AIHak enpresen mozkinak oztopatzen dituzten politika publikoei desafio egiteko tresna bilakatu dira. Dagoeneko multinazionalak prozesu legegileetan presio sartzeko zuten gaitasunari, presio-talde hauek gustuko ez duten edozein lege salatzeke gaitasun hertsatzailea gehitu beharra dago.

Juan Fernández Armesto espainiar arbitroak, AIHek interes publikoaren gainean dituzten ondorio larrien inguruan bere iritzi zintzoa eman zuen: “oraindik ere harritzen nau, Estatu burujabeek gisa honetako arbitraia onartu izanak [...] Hiru pertsona partikularri, inongo mugarik gabe eta gerora gora jotzeko aukerarik gabe, gobernu baten akzio guztiak, Estatu baten auzitegien erabakiak eta Parlamentutik eratorritako lege eta araudi guztiak, errebisatzeko ahalmena ematen zaie”.

AIH eta Estatu-inbertitzaile Auzien ezta edo Globalizazio Neoliberalaren une gorenak bat egin izana, ez da kasualitate hutsa. Gus van Hartenek adierazi du “ puzzle neoliberalaren pieza juridiko eta instituzional garrantzitsuak dira” AIH eta auzitegiak, izan ere “gubernuei murrizketa legal eta ekonomiko zinez indartsuak inposatzen baitizkiete”.

## 7. Azken hausnarketa

Dokumentuan zehar bueltaka ibili gara, TTIP gora, Merkataritza Libreko Hitzarmenak behera. Aurretik argi ez bazegoen, dagoeneko garbi geratuko zen MLHak gizartea eskubideez desjabetzeko arma politikoa direla.

Atlantikoaren bi aldeetako erraldoiak, AEB eta EBk elite politiko-korporatiboak, gure eta datozen belaunaldien etorkizuna zeharo baldintzatu duen akordioa zehazten ari dira sekretupean. Duela 30 urte baino gehiago nagusitu den pentsamendu neoliberalak oraindik eman ez diena, eta krisiaz geroztiko austeritate politikekin oraindik eskuratu ez dutena, horixe da beraien harrapakina. Oraindik liberalizatu ez dena, oraindik pribatizatu ez

dena, oraindik sektore publikotik desmuntatu ez dena. Aspalditik eskatzen ari direna.

Hau ez da Ameriketako Estatu Batuen eta Europar Batasunaren arteko soka-tira jolasa. Atlantikoaren bi aldeetako lobby politiko ekonomikoak elkarrekin daude honetan. Beste muturrean gizarte zibila dago, erabakieremuetatik erabat kanpo. Proiektua geldiaraztea lortzen ez bada, Europari dagokionez, Europako Batzordeak izango du azken hitza, guri, herritarroi, ezer galdetzeko inolako obligaziorik gabe.

Eliteei eskura ematen zaien edozer, gizarteari erauzten zaion zerbait da: lan esparruko eskubideak, ingurugiroa babesten duten legeak, publikoak diren zerbitzuen salmenta... Zer gertatuko da behin eskubide horien titularitatea esku pribatuei eman ostean? Adibide bat jartzearen, zer gertatuko da, behin transgenikoak onartuta, hauen eragina elikadura-katea osoraino hedatzen den egunean? Egongo al da atzera egiterik?

Proiektu honek, gizartea, ingurugiroa, lan esparrua eta osasuna larri zauritzeaz gain, burujabetasuna ere kolpatuko du (eta ari da kolpatzen dagoeneko, prozesuaren gardentasun eta demokrazia eza ikusita). Burujabetasun demokratikoa, ekonomikoa, eta elikadura burujabetasuna.

Akordioak, gainera, norabide-lema multinazionalen emango die, enpresa-estatu auzien klausularen bidez. Horrela, akordioaren bidez bermatzen ez dituzten interesak, estatuen kontrako salaketak jarritz lortuko dute behin hitzarmena indarrean sartzen denean. Sistema auto-elikatzen da horrela, gurpil zoro baten gisa: gizartea eskubidez desjabetzeko makina.

---

1. Jean Gadrey, zerbitzuen sektorean eta aberastasuna neurtzen duten adierazleetan aditua den ekonomialari frantsesa da. Lille I unibertsitatean irakaslea izateaz gain, Joseph Stiglizek zuzendutako Stiglitz Batzordean parte hartu zuen. Teoria ekonomiko neoklasikoaren eta neoliberalismoaren gaineko kritikengatik ezaguna da, eta azken urteetan, hazkunde ekonomikoaren mugak eta aberastasanaren adierazleen inguruan lan egiten ibili da. Gaur egun Attac erakundeko Kontseilu Zientifikoko kidea ere bada.
2. “Tan lejos de DIOS y tan cerca de los EEUU”.
3. Nick Clegg (Erresuma Batuko Lehen Ministrordea) eta Christopher Murphy eta Ron Johnson senadore estatubatuarrek aurkeztutakoa.
4. Jabego Intelektualaren Eskubideen Ezaugarrien inguruko hitzarmena (TRIPS ingelesez) Muga Zergei eta Merkataritzari Buruzko Akordio Orokorren baitan zehaztu zen (GATT ingelesez)

**Glosarioa**

- ACTA** (Anti-Counterfeiting Trade Agreement), Faltsutzearen Aurkako Merkataritza Hitzarmena. Aldeanitzeko akordio honen helburua jabego intelektuala babestea da, faltsutzeak, sendagai generikoak eta interneteko pirateria saihestu asmoz. ACTAren negoziazioak sekretupean egiten dira eta ez dagozkio inongo nazioarteko erakunderi. Europar Batasunak 2012an sinatu ziren arren, urte bereko abenduan Europako Batzordeak atzera botatzea erabaki zuen.
- AEB** Ameriketako Estatu Batuak.
- AIZ** Atzerriko Inbertsio Zuzena, Inversión Directa Extranjera gazteleraz. Atzerriko herrialde batean epe luzera egiten diren kapital inbertsioak dira; nekazaritza enpresak, industria-enpresak edota zerbitzu-enpresak sortu asmoz. Hau da, inbertsio espekulatiboak ez bezala, ekonomia errealean atzerrian egindako inbertsioak biltzen dira kontzeptu honen atzean.
- ELGA** Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea, OCDE siglez ezagunago agian. 1961ean sortua, munduko herrialde aberatsenak biltzen dituen organizazio kooperatiboa da, guztira 34 herrialdek osatua. Hauen helburua partaideen politika ekonomiko eta sozialak koordinatzea dira.
- GKE** Gobernu Kanpoko Erakundea.
- JIE** Jabego Intelektualen gaineko Eskubideak.
- LANE** Lanaren Nazioarteko Erakundea (gaztelaniaz OIT, Organización Internacional del Trabajo), 1919an sortu zen. Gaur egun Nazio Batuen Erakundearen barneko erakunde autonomoa da eta Genevan du egoitza. Nazioarteko arauak ezartzen ditu, erakundean parte hartzen duten nazioek izenpetzen dituzten hitzarmenen bidez. LANE osatzen duten herrialdeetako gobernu kideek eta lan- eta industria-ordezkariek osatua da.
- MLH** Merkataritza Librerako Hitzarmenak, (TLC Tratado de Libre Comercio), bi eskualderen edo gehiagoren artean egiten diren itunak dira (aldebikoak ala aldeanitzak), eta parte hartzaileen artean ondasun eta zerbitzuen merkatuak handitzea dute helburutzat. Hitzarmen hauen artean ditugu Aldebiko Inbertsio Hitzarmenak (AIH).
- MMA** Munduko Merkataritza Antolakundea, nazioarteko salerosketak liberalizatzeke eta ikuskatzeko asmoa duen erakundea da. 1995eko urtarilaren 1an sortuta, GATT (Tarifa eta Sal-erosketarako Akordio Orokorra) erakundearen ondorengoa da.
- NAFTA** (North American Free Trade Agreement), Ipar-Amerikako Merkataritza Librerako Hitzarmena. Kanada, AEB eta Mexikoren artean 1994an sinatutako hitzarmena da.
- TTIP** (Transatlantic Trade and Investment Partnership): Atlantiko-arteko Merkataritza eta Inbertsio Hitzarmena.



## Bibliografía

- El tratado transatlántico, un tifón que amenaza a los europeos. Lori M. Wallach, Le Monde Diplomatique, 2014/04/07. Eskuragarri: <http://www.rebellion.org/noticia.php?id=183027>
- Acuerdo Trasatlántico de Comercio e Inversión (TTIP): utopía de las corporaciones multinacionales, distopía de los trabajadores y los ciudadanos. J. Anastasio Urrea, Attac, 2014/05/19. Eskuragarri: <http://www.attac.es/2014/05/19/acuerdo-trasatlantico-de-comercio-e-inversion-ttip-utopia-de-las-corporaciones-multinacionales-distopia-de-los-trabajadores-y-los-ciudadanos/>
- 50 preguntas y respuestas sobre el Tratado de Libre Comercio. Alberto Garzón eta Desiderio C. Pozo, Attac, 2014/05/23. Eskuragarri: <http://www.attac.es/2014/05/22/alberto-garzon-50-preguntas-y-respuestas-sobre-el-tratado-de-libre-comercio/>
- El plan secreto para dar entrada a EEUU en el negocio de los servicios públicos de Europa, Belén Carreño, [www.eldiario.es](http://www.eldiario.es), Belén Carreño, [Eldiario.es](http://www.eldiario.es), 2014/06/13. Eskuragarri: [http://www.eldiario.es/economia/DOCUMENTO-UE-EEUU-Tratado-Comercio\\_0\\_270523019.html](http://www.eldiario.es/economia/DOCUMENTO-UE-EEUU-Tratado-Comercio_0_270523019.html)
- A Global ban on Left-wing Politics. George Monbiot, The Guardian, 2013/11/05. Eskuragarri: <http://www.monbiot.com/2013/11/04/a-global-ban-on-left-wing-politics/>
- Sobre el tratado UE-USA: TTIP. Plataforma por la paz y los DDHH en Colombia, 2014/05/19. Eskuragarri: <http://www.tercerainformacion.es/spip.php?article68508>
- The US-EU trade deal: don't buy the hype. Dean Baker, The Guardian, 2013/07/15. Eskuragarri: <http://www.theguardian.com/commentisfree/2013/jul/15/us-trade-deal-with-europe-hype>
- Lo que esconde el Tratado Comercial Transatlántico. Tom Kucharz, Diagonal, 2013/10/07. Eskuragarri: <https://www.diagonalperiodico.net/global/20116-lo-esconde-tratado-comercial-transatlantico.html>
- El acuerdo transatlántico de libre comercio: el ascenso al poder ilimitado de las multinacionales. Traducción de una versión reducida del documento S2B: "A Brave New Transatlantic Partnership", 2014/02/24. Eskuragarri: <http://www.attac.es/2014/02/24/el-acuerdo-transatlantico-de-libre-comercio-el-ascenso-al-poder-ilimitado-de-las-multinacionales/>
- Tratados bilaterales de inversiones: Una herramienta fundamental para la globalización neoliberal. Luis Rico García-Amado eta Tom Kucharz, OMAL Observatorio de Multinacionales en América Latina, 2013/12/24. Eskuragarri: <http://omal.info/spip.php?article6148>
- Un proyecto que hay que frenar. Jean Gadrey, Viento Sur, 2014/04/29. Eskuragarri: <http://www.vientosur.info/spip.php?article8975>

- iPeligro! Acuerdo Transatlántico. Ignacio Ramonet, *Le Monde Diplomatique*, 2014/03/01. Eskuragarri: <http://www.rebelion.org/noticia.php?id=181441>
- 20 años del TLCAN: el recuento del desastre. Manuel Hernandez Borbolla, 2014/01/13. Eskuragarri: <http://www.sopitas.com/site/277173-20-anos-del-tlcan-el-recuento-del-desastre-parte-1-de-3/>
- Apuntes sobre el tratado de libre comercio UE-EEUU. Ramon Boixadera i Bosch, *Mientras tanto*, 2014/01/27. Eskuragarri: <http://www.mientrastanto.org/boletin-120/notas/apuntes-sobre-el-tratado-de-libre-comercio-ue-eeuu>
- Is free trade really free? Doug Mercer, *Torrington*, 2014/04/09. Eskuragarri: [http://www.torringtontelegram.com/V2\\_news\\_articles.php?heading=0&page=71&story\\_id=14273](http://www.torringtontelegram.com/V2_news_articles.php?heading=0&page=71&story_id=14273)
- NAFTA at 20: One Million U.S. Jobs Lost, Higher Income Inequality. Lori Wallach, *Huffingtonpost*, 2014/06/01. Eskuragarri: [http://www.huffingtonpost.com/lori-wallach/nafta-at-20-one-million-u\\_b\\_4550207.html](http://www.huffingtonpost.com/lori-wallach/nafta-at-20-one-million-u_b_4550207.html).
- Contra el lobby farmacéutico. *Viento Sur*, 2014/04/28.
- Escenarios y desafíos en la actual coyuntura internacional. Secretaría de Relaciones Internacionales CTA, Adolfo Aguirre, 2014/04/1. Eskuragarri: <http://www.ctainternacionales.org/wp-content/uploads/2014/04/CuadernilloESCENInternac11.pdf>
- Argentina versus el Banco Mundial: ¿Juego limpio o partido arreglado? T. Phillips, 2008/06/17. Eskuragarri: <http://www.cipamericas.org/es/archives/649>
- La folie d'intégrer l'agriculture dans un accord de libre-échange transatlantique UE-EU. Jacques Berthelot, *Solidarité*, 2013/08/15. Eskuragarri: [http://data.over-blog-kiwi.com/0/55/35/84/20140429/ob\\_dd7021\\_la-folie-d-inte-grer-l-agriculture-da.pdf](http://data.over-blog-kiwi.com/0/55/35/84/20140429/ob_dd7021_la-folie-d-inte-grer-l-agriculture-da.pdf)
-



